



2017. urtean Moriko eta Poeta iheslariei Asturiaga hondartzan egindako omenaldiaren artxiboko irudia. ASIER PEREZ-KARKAMON

Indar polizialek eraildako Roke Xabier Mendez Villada eta Jose Luis Mondragon Elortza gazteen heriotzaren urteurrenean, hilketa argitzeko aldarrikatu du beste behin Asturiaga 1974 taldeak.

46 urtez gorriz tindatutako urak

-REBEKA RUIZ

Maiatzak 20 orain dela 46 urte. Bi gazte tiroz erailtzen dituzte Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak Hondarribiko Asturiaga edo Fraidean hondartzan. Hirugarren gizon bat, infiltratua, bizirik ateratzen da. Roke Xabier Mendez Villada *Poeta* eta Jose Luis Mondragon Elortza *Moriko* ioheslariak dira hildakoak, 21 urteko santurtziarra eta 27 urteko arratserra, hurrenez hurren.

1974. urtea zen, eta Francoren diktadurak bizirik jarraitzen zuen. Carrero Blanco hilabete batzuk lehenago hil zuen ETAK.

eta giro politikoa nahasia zen. Xabi Bengoetxea Asturiaga 1974 memoria taldeko kidea da, eta testuingurua baloratuta ziurtzat jo du polizia «amorratuta» zegoela garai hartan.

Txosten ofiziala da gertatutakoa argitzeko erabili den oinarri bakarra. «Ezin da kontrastatu ez dagoelako informazio gehiagorik», dio Bengoetxeak. Are gehiago: «Garaiko prentsa irakurrita, prentsa frankista noski, ez da informazio nahikorik txostenean agertzen dena kontrastatu ahal izateko. Denek errepikatzen dute zehatz-mehatz polizia txostenean esaten dena».

Zer dio, baina, zehatz-mehatz txosten ofizialak? Jose Luis

Arrondo *Cocoliso* infiltratuak mugaz bestaldetik Hondarribira eramán zituela Moriko eta Poeta zodiak batean, «bahiketa» bat egin behar zutela eta. Fraideen hondartzara iristean, ordeá, Espainiako Polizia eta Guardia Zibila zain zituzten, eta iheslariak geldiarazi eta inguratu zituzte-nean hasi zen tiroketa. Emaítza zein izan zen argi dago: «Infiltratua bizirik atera zen baina bi gazteek heriotza aurkitu zuten».

Osatzeke dagoen puzzlea

Garai ilunak izan ziren haiek politikoki eta sozialki, eta Asturias-gako segada testuinguru horretan kokatzea ezinbestekoa iritzi dio Bengoetxeak. Poeta eta Mori-

ko Iparr Euskal Herrian erbeste-
ratuak zeuden, eta politikoki
«aktiboak» ziren arren, ETatik at-
zeuden momentu hartan. Poeta-
ren kasuan, gainera, emaztea
zazpi hilabetez haundin zegoela
zehaztu du taldekidetak. «Emaz-
teari esan zion ez zuela muga pa-
sako», erantsi du. Testuingurua
kontuan hartuta Poetak ez zuela
«halako arriskurik hartuko» ziur-
agertu da Bengoetxea: «Infiltra-
tua genganatu ekarri zituztela
hona uste dugun».

Eusko Jaurlaritzak 2016ko azaroan argitaratutako *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak*, herriz herri txostenak Hondarribian izandako indar-

Moriko eta Poeta iheslariak omentzeko ekitaldia antolatuko du Asturiaga 1974 memoria taldeak biharko. Hori bai, izurri egoerara egokitutako deialdia izango da aurtengoa.

09:00etan kai berrian elkartzera deitu du taldeak, bi metroko segurtasun distantziak mantenduz ure oro. Handik abiatuta Asturiagara doan kostako bidea hartuko dute bidegurutzeraino, ilaran gelditu eta banan-banan jaitsiko dira parte hartzaileak.

Segurtasun Sailak baimena ukatuko balu, taldearen Facebook orrialdean zabalduko lukete omenaldirako ezezkoa.

keria kasuak, 1960 eta 2010 urte-
ren artean, jasotzen ditu, tartean
Poeta eta Morikorenak. Txoste-
nak dienez, bi iheslariarik talde
armatua utzi zuten ekintza auto-
nomo bat egiteko asmoz. Hala-
ere, «argibide urriak eta bertsio
desberdinak» dituen gertaera
dela adierazten du. Bengoetxeak
ere hala baieztatu du. «Familia-
eskaera egin du indar polizialen
biktima bezala aitortua izan da-
din, baina erantzun zaiona da ez
dela nahikoa datu jakiteko bene-
tan gertatu zena». Daturik ez iza-
teak erreparazioaren bidea ukatu
die senideei.

Zentzu horretan, Poetaren alaba biktima gisa aitortza jasotzeko leanean ari dela azaldu du, eta Ferrolgo artxibategi militarrean informazioa lortu du dagoeneko. Etorkizunean errekonozimendua jasotzeko itxaropena agertu du Bengoetxeak: «Justiziarik ez da egongo, baina egia jakin nahi dugu, nahiz eta egia frankismoarekin eta amnistiarekin batera alde egin zuen».

rruiz@hitza.eus